

Merkatuan

- Eroslea : Egun on, anderea.
1. saltzailea : Bai zuri ere. Zer gustu zenuke ?
- Eroslea : Gaur arroltze dozena bat hartuko dizut. Zer preziotan dituzu ?
1. saltzaile : Bi eurotan. Fresko-freskoak dituzu, atzo errunak. Beste zerbait nahi duzuia ?
- Eroslea : Ez, ondokoari gasna puska bat erosiko diot. Heldu den aste arte, anderea (edo jauna)!
- (Ondoko sal-mahaira hurbiltzen da.)
2. saltzailea : A! Plazer da erosle fidelen ikustea! Gaur ere gasna tunko bat hartuko didazu? Zeintarik ote? Behi gasnatik? Ardi gasnatik? Nahastikatutik? Ala hiruetatik puskaño bat? Denak onak dira.
- Eroslea : Ooooo Pette! Emekiño! Ez gara aberats puxantak, gero! Emaidazu nahastikatutik tunkoño bat. Hara, ontsa duzu. Zenbat zor dizut ?
2. saltzailea : Hamaika euro ttanko.
- Eroslea : Milesker eta ondoko egunak artio!
3. saltzailea : Bai, heldu den larunbata artio!
- Fruitu saltzailea : Marrubiak, 2 euro zarettoa. Euskal-Herrikoak eta biologikoak! Balia zaitezte! (ozenki) Paregabeak eta merkeak! Hurbil zaitezte eta dasta itzazue!
- Eroslea : Zinez itxura oneko marrubiak dituzu! Nongoak dira ?
4. saltzailea : Uztaritzekoak. Bai, horiek bederen ez dute mila kilometro kurritu salduak izan aitzin. Gainera ongailu kimikorik gabe jinaraziak dira. Dasta ezazu baño eta zuhaurek ikusiko duzu.
- Eroslea : Ummmm ! Ahotik ezin utziak dira ! Bi zaretto hartuko dizkizut eta heldu den astean hor baldin bazara, beste biga baztertuko dizkidazu. Tori saria eta erran bezala. (Bere buruari) Putxa ! Haragia ahanzten dut ! Non dut harategia ? A ! Hantxetan !
5. saltzailea : Egun on ! Zer nahi zenuke ? Idikia ? Bildoskia ? Xerrikia ?
- Eroslea : Bildoskia hartuko dizut, kosteletak.
5. saltzailea : Zenbatentzat ?
- Eroslea : Lau gara baina denak apetitu onekoak !
5. saltzailea : Beraz hamabi emanen dizkizut, ttipiskoak baitira. Haragi hauta duzu hor. Ontsa errerik ahoan urtuko zaizue ! Besterik behar duzuia ?
- Eroslea : Ez, aldi honetako aski dut. Zenbat heldu da ?
5. saltzailea : Hamalau euro eta berrogeita hamar. Ez zaizu dolutuko eneganat etorririk.
- Eroslea : Agian, agian ! Izan ontsa eta beste aldi bat artio !
Hara. Uste dut aldi honetan behar dudana guzia erositako dudala. Hobe dut haia-haia etxera joanik tturrindurik gelditu aitzin !

Jokalariak : Bost saltzaile eta erosle bat
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti